



## **ALKATETZAREN MEMORIA: 2020KO AURREKONTUAK**

2020ko aurrekontuak onartzeko espedientearen barruan, nahitaezkoa da Alkatetzaren Memoria hau sartzea. Dokumentu honekin, partidarik esanguratsuenak banakatu eta argitzeaz gain, Udalaren funtzionamenduan aurrekontu-erakundeak eragin diezaieketen aldaketak ere nabarmendu nahi dira, bai eta, Alkatetza honen iritziz, udal taldeek aurkeztutako hiri- eta herritartasun-ereduaren estrategiaren barruan eta orain arte izandako negoziazioetan azpimarragarrienak diren helburuak eta xedeak ere.

Aurrenik eta behin esan behar dut aurrekontu-proiektu hau 2019-2023 agintaldi honetako lehena dela. 2019ko maiatzean, Eibarko herritarrek, beren boto aske, legitimo eta demokratikoarekin, Udalaren osaketa zein izan behar zen erabaki zuten. Berrito ere, alkate honek aurkeztutako hiri-proiektuan jarri zuten konfiantza gehien, eta, aldi berean, elkarrizketarako eta akordioak bilatzeko mezua helarazi zuten, bai agintaldian, bai unean unekoetan, gobernagarritasuna bermatzeko beharrezkoak. Ez zion alderdi politiko bati ere gobernatzeko behar besteko gehiengorik eman akordio beharrik gabe.

Horregatik, eskertu nahi dut 2019ko maiatzean berrito emandako konfiantza hori, eta nire gain hartzen dut hiriak aurrera egin dezan, hazten jarrai dezan eta hobetzen jarrai dezan ahalbideratuko duten akordioak etengabe bilatzeko lanean aritzeko jaso dudana agindua.

Halaber, adierazi behar dut, uste sendoa dugula, egindako bidea luzea dela baina norabidea zuzena dela esatean; bidea Udaleko gainerako indar politikoekin egin behar dela; eta, are garrantzitsuagoa dena: herritar bakar bat ere ezin dela bide ertzean geratu. Dokumentu hau egiteko jarraitzen diren printzipioak —hauxe baita urtero aurrera egiten laguntzen digun funtsezko gida—, berberak dira eta izango dira. Gure hauteskunde-programa, gutxiengoan gobernatzean Agintaldiko Plangintza bihurtzen dena, elikatzen hasi da bere proposamenekin Aurrekontu hauek biltzen dituzten kapituluak. Era berean, Udalean egindako dokumentuak —batzuk berrikuste-fasean daudenak, beste batzuk edukia garatzen ari direnak, batzuk ibiltzen hasiak— isla dute Dokumentu honetan. Plan Estrategikoa, Garapen Ekonomikorako Plan Zuzentzailea, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Mugikortasun Plana, Irisgarritasun Plana edo Kirolaren Plan Estrategikoa ditut hizpide.

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da udal aurrekontuen bidez garatzen den udal politika bideratzeko, eta, horregatik, dokumentu honetan islatutako aurrekontu-erakundean txertatu behar dira, bai garatutako edo garatu beharreko partaidetza-prozesuen emaitzak, bai auzo-bileren edukiak, bai, berez, Udalera hainbat komunikazio-kanaletatik bidez iristen diren proposamenetan datozenak.



Era berean, beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzeari esker, abian jar daitezke instituzioen laguntza duten udal proiektuak edo Udalaren ekarpena eta lankidetzak eskatzen duten beste erakunde batzuen proiektuak.

Eta, azkenik, baina gainerako printzipioen garrantzi maila berberarekin, beste udal taldeen ekarpenak. Gutxiengoan gobernatzen dugunez, behar adinako gehiengo eskuratzeko premia juridikoa dago Udal Osoko bilkuran Aurrekontuen onespena lortzeko. Baina beti gidatu gaitu konbikzio honek, eta oraindik ere —obligazioa eta premia alde batera utzita— hala gidatzen gaitu: babesak legez ezarritako gutxienekoak gainditze horrek oraindik gehiago legitimatzen duela Dokumentua eta haren edukia. Akordio bidez, gainerako taldeek egindako ekarpenek beti aberastuko dute Dokumentua, ekimenen beste ikuspegi osagarri bat emango dute, eta hiria eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko bidean aurrera egiten lagunduko dute.

Azkenik, beharrezkoa da esatea udal kudeaketan aldatu diren edo aldatzen ari diren errealitate batzuek aldaketa garrantzitsuak eragiten dituztela aurrekontu-partiden edukian, eta zaildu egiten dutela aurreko ekitaldiekiko azterketa konparatiboa. Kabia erakundeak 2020ko urtarrilaren 1az geroztik San Andres Fundazio Publikoa bere gain hartu izanari buruz ari naiz; beraz, Udalak Fundazioari egiten dizkion ekarpenek desagertzeko joera izango dute. Dokumentu honetan horretarako partida murriztagoa aurreikusten da, hasitako obra batzuei eta Fundazioko Batzordeak langileekin hartutako lan-konpromisoei aurre egiteko; eta hori guztia laster betetzea espero dugu.

Halaber, Musika Eskolaren Patronatua desagertzeak eta udal-egituran sartzeak, eta udal eraikinen garbiketa-zerbitzua barneratzeak —une honetan gauzatzen ari dena— ondorio batzuk izan ditzakete orain aurkezten dugun aurrekontu-dokumentuaren osieran.

Aurkezten dugun agiriak 42.922.280,58 euroko aurrekontua du, 2019ko aurrekontua baino % 10 gehiago, gutxi gorabehera. Eta urte bakoitzeko zorpetze-aurreikuspena aztertzen badugu, gastuaren % 15 gehiago sortzeko gaitasuna du, familien egoera hobetzeko, ekonomia- eta ekoizpen-ehunari laguntzeko, elkarre-ehunari laguntzeko eta gure ingurunearen hobekuntzetan inbertitzeko, gure hiria irisgarriagoa, erosoagoa eta bizigarriagoa izan dadin.

## **DIRUSARRERAK KAPITULUAREN EGOERA**

Epigrafe honen egituran azken Kapituluak hartu behar da kontuan, finantza-pasiboei buruzko 9. Kapituluak, alegia. Kapitulu horrek, kredituaren bidez, Aurrekontua behin betiko orekatzen du, eta, gure zorpetze-gaitasunean oinarrituta, gastuen atalean, diru-sarreraren gaitasun garbiak ahalbidetuko ligukeena baino anbizio handiagoa izan ahal izango dugu.



Beraz, 9. Kapitulu hori alde batera utzita, ekitaldi honetan 38.326.376,2 euroko diru-sarrerak aurreikusten ditugu; aurreko ekitaldian, berriz, 33.243.089,8 euro izan ziren, hau da, % 15 gehiago. Eta nire ustez gehiago balioetsi behar da igoera hori, kontuan hartuta beste urte batez —eta bost urte doaz jarraian—, Udalbatzak, Alkatetzak honen eskariz, berriro onartu duela Udal Ordenantza Fiskalak izoztea.

Egia da makroekonomiak dagoeneko hazkunde-bide bat daramala, eta horri esker hobetzen ari da herrialdearen ekonomia- eta ekoizpen-ehunaren aberastasun-sorrera, eta, beraz, baita beste erakunde batzuen diru-bilketarako ahalmena ere, eta horrek, zeharka bada ere, gure diru-sarreraren ahalmena hobetzen laguntzen digu.

Baina egia da, halaber, mikroekonomiak, familia-ekonomiak, etxeko ekonomiak, ekonomia indibidualak oraindik ere pairatzen jarraitzen dutela aro garaikidean izan den krisirik gogorrenaren, luzeenaren, gordinenaren eta globalenaren ondorioak. Eta horregatik, Udaletik, mikroekonomia horrekiko sentiberatasuna erakutsi nahi dugu.

Eta egia da Kontu-hartzaitzak, bere eskumenaz eta erantzukizunaz baliatuz, Ordenantza Fiskal horietan gehikuntzak egitea gomendatu zuela, baina harro senti gaitzeko Udal Osoko bilkurak hartutako erabakiaz, izan ere, proposamen teknikoak ulertu eta errespetatu arren, herritarrekin hurbiltasun-keinu hori egitea adostu baitzuen, eta, bosgarren urtez jarraian, Ordenantza Fiskalak izoztu, Euskadiko hainbat udalen gehiengoak egin ez zuen bezala, hauek, gutxienez, KPI-aren araberrako gehikuntzak egin zituzten-eta.

Eta erabaki horretatik ondorioztatzen da Diru-sarrera Zuzenen 1. kapitulua egonkor mantendu dela aurreko ekitaldiari dagokionez. OHZ, Ibilgailuen gaineko Zerga, Plusbalia eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ditugu hizpide.

Tasa eta Beste Sarrera batzuek izeneko 3. kapituluan, % 16,5eko igoera izan da, nahiz eta izoztu egin den, funtsean, Musika Eskola udal-egituraren sartzearen ondorioz, eta, beraz, matrikulen kobrantza diru-sarrera propio gisa jaso da, epigrafe hori 35.000 eurotik 185.000 eurora handituz. Hortik gorako igoera Kapitulu honetan jasotako kontzeptuetako batzuen portaera hobeagatik sortutako doikuntza txikien ondorioa da.

Ikuspegi kuantitatibotik, funtsezko hiru kontzeptu nabarmendu behar dira, diru-sarreraren atal orokorra modu nabarmenean handitzea ahalbidetzen dutenak, eta aurreko ekitaldiarekiko +% 15eko diferentzia hori azaltzen dutenak.

- Zeharkako Zergen 2. Kapituluak Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga jasotzen du, eta 2019arekin alderatuta, 1,2 milioi euro inguruko igoera izan du, 2 milioira hurbilduz. Izaera sozialeko neurri bati eusten segitzen dugu, hainbat hamarkadatan indarrean egon dena, eta hori egiten duten udal bakanetakoak gara. Neurri hori gure etxebizitzetan, fatxadetan, teilatuetan edo auzo-igogailuetan egiten ditugun obra txikietan zerga hori ordaintzetik salbuestea da.



Neurri horrek, noski, zerga horren diru-bilketari eragiten badio ere, bolumen handiko obrak hasteko aurreikuspenek optimistak izateko aukera ematen dute, dokumentuan jasotakoa lortuko dela-eta.

Ohi egiten diren eta zerga honen mende dauden obrekin batera, Errekatxu, Bolingua, Blas Etxeberria edo Aizarnako hirigintza-garapenaren hasierak aukera emango du, kontzeptu horrengatik, ekimen horietako bakoitza gauzatzeko aurrekontuaren % 5 biltzeko.

- Transferentzia arrunten 4. kapituluaren barruan, beti bezala, Udal Finantzaketarako Foru Funtza aipatu beharrean gaude. 2019ari dagokionez, kontzeptu horren diru-sarrerak % 3,5 handitzea aurreikusten da, eta ia 20 milioi eurora iritsiko da. Foru-ekarpen hori Aldundiak diru-bilketarako duen ahalmenaren ondorio dela kontuan hartuta, azken urteotan izandako goranzko joera horrek erakusten digu, lurraldearen egoera ekonomikoa ere, hazkunde iraunkorreko bide horretan dagoela. Diru-sarrera aurreikuspeneko 20 milioik, 38 milioiko pasibo finantzarioa kenduta, diru-bilketa kontzeptu hon garrantzia nolakoa den adierazten dute.

- 6. Kapituluak —Inbertsio errealak eta beste diru-sarrera batzuk besterentzea—, hirigintza-jarduketan ondoriozkoa, hazkunde deigarriena izan duen kapituluak da, argi eta garbi bereizitako eta justifikatutako hiru arrazoiengatik ondoren azalduko ditugunak.

- Lehen, 2. kapituluari buruz esan dugun bezala, 2020. urte honetan hirigintzako garapen askoren hasiera dago aurreikusita, eta horien ondorioz, aipatutako Eraikuntzen gaineko Zergaz gain, eragiketa horietako batzuen hirigintza-aprobetxamenduaren % 15 monetarizatzeko eskubidea izango du administrazioak. Bolingua edo Blas Etxeberria bezalako jarduerak, besteak beste, 1,3 milioi euro inguruko diru-sarrera ekarriko dio Udalaren diru-kutxari.

- Aurreko urtean Eibarko EAJ-PNVrekin batera egindako hausnarketa baten ondorioz, salgai egon zitezkeen garajeen eta lokalen inbentario bat egitea erabaki zen, eta diru-sarrerak sortzea Udalaren lurzoru-ondarera bideratzeko. Asolaigartzan, Alfán eta San Andresen garajeak saltzeak, funtsean, 300.000 euro inguru sartzeko aukera emango digu.

- 2020an zehar, eta aurreikusitako epeen arabera, Errebal Plazian eraikinaren proiektu orokorraren barruan eraikitzen ari den garaje-paketea kudeatu behar da; 100 plaza inguru ditu eta hogeita hamar bat trasteleku.

Garaje horiek herritarrei eskualdazeko formulen azterketa juridikotik ondorioztatzen denaren arabera, ezingo da salmentarik egin, eta, beraz, proposatutako figura juridikoa gehieneko eperako jabari publikoko ondasunaren emakidarena izango da, hau da, 75 urtekoa.



Datozen hilabeteetan, Udalak oinarriak egingo ditu baldintza eta epe guztiekin, eta jabari publikoko emakida horiengatik 1,5 milioi euro inguru sartzea aurreikusi da.

Ikus daitekeenez, 2. Kapituluaren portaerak, Udal Finantzaketarako Foru Funtzarenak, 4. kapituluaren eta 6. Kapituluaren barruan aukera ematen du 2019an baino 4,5 milioi gehiago aurreikusteko. Diru-sarreraren gehikuntza horrek gastu-proposamenen bidez hartutako konpromisoak betetzen joateko aukera emango digu agintaldiaren aurreneko ekitaldi honetan.

### **GASTUEN EGOERA.**

Sarrerako atalean aurreratu dugun bezala, Aurrekontuen Proiektu honek —bere onarpena bermatzen duten eta zuzenketen bidez islatuko diren akordio politikoen ondorioz etor daitezkeen gehikuntzak alde batera utzita—, 2019ko Aurrekontuen Proiektuaren gastuarekiko duen gehikuntza % 10 ingurukoa da, eta 43 milioi euro inguruko proposamen batera iristen da.

Aurrekontu-teknikak dokumentua kapitulutan eta partida funtzionaletan egituratzera behartzen du, eta batzuetan zaila egiten da proposamen honen bidez lortu nahi diren helburuak ikustea.

Halaber, zenbait kapitulu Udala bezalako erakunde baten ohiko funtzionamendutik eratorritako betebeharren katibu dira. Pertsonaleko gastuek —gastuaren zati handia— eta transferentzia arruntek, aktiboek eta pasibo finantzarioek maniobratzeko tarte txikia uzten dute, eta nahitaez bete beharreko kapitulu dira.

Agintaldi berri bat hasi dugu; 2019-2023 aldian izapidetu beharko dugun lau Aurrekontuetako lehenaren aurrean gaude, eta horregatik hasi behar dira hauteskunde-kanpainako konpromisoak zehazten, gobernu-konpromiso bihurtzen baitira, agintaldian zehar bete behar ditugun konpromisoak.

Xehetasun larregikoetan sartu gabe, partidaz partida aztertu gabe, komenigarria da memoria honetan helburuak, proposamenak eta ekimenak jasotzea, aurrekontu honen aplikazioaren bidez herriari aurrera egiten, hobetzen eta herritarrek eskatzen dituzten beharrei erantzuten jarraitzeko aukera emango diotenak. Eibar merezi duen herri egiten jarraitzea.

Horretarako, Memoria hau ulergarriagoa izan dadin eta gobernu-talde honek agintaldian zehar gauzatu nahi duen ekintzaren ildo nagusiak identifikatu ahal izateko, 2020ko Aurrekontuen Proposamen honetan jasotako ekintzarik esanguratsuenak erraz ulertzeko moduko bloke bitan biltzen saiatuko gara.



## **EIBAR BIZI IZATEKO, EIBAR ELKARREKIN BIZITZEKO**

Ez dago zalantzarik gure gobernu-ekintzaren helburu nagusietako bat eta gure konpromiso handienetako bat Eibar bizi nahi dugun herri izateko lan egitea dela, Eibarrek hiri-kalitatea hobetu dezan, bere azpiegiturak hobetu ditzan, atseginagoa izan dadin, irisgarriagoa izan dadin, jasangarriagoa izan dadin, bizitzeko erosoagoa izan dadin. Azken finean, herritarrek gure ekintzan bizi-kalitatearen inguruan dituzten kezkei erantzuteko lan egitea.

Baina lanean jardun behar dugu baita, eta hala egiten dugu, gure nortasunaren ezaugarriak handienetakoak indartzeko: tolerantzia, integrazio soziala, elkarbizitza.

Eibar integratzailea, tolerantea, euskalduna, kultura aldetik irekia, igoalgarria edo berdintasunezkoa, ingurumenaren aldetik jasangarria, sozialki solidarioa eta konprometitua nahi dugu. Gure historia islatu eta etorkizuneko errealtateetara egokituko duen Eibar bat.

Bizi izateko eta elkarrekin bizi izateko Eibar hori gidatuko duten printzipioetan lanean jarraitu ahal izateko, hainbat proposamen eta ekintza islatzen dira proiektu honetan, beste alderdi batzuekin egindako aurrekontu-akordioen bidez hobetuak, negoziazioaren atalean zehaztuko ditugunak.

Kuantitatiboki, proiekturik garrantzitsuenak Inbertsioen Kapituluaren daude, eta, funtsean, hirigintza-, irisgarritasun-, eraikuntza-esparrukoak edo hiri-inguruneetako hobekuntzei buruzkoak dira.

- 3.300.000 euro Errebaleko proiektua amaitzeko eta hirirako, aisialdirako, kulturarako eta elkarbizitzarako topagune estrategiko bat sortzeko
- 2.000.000 euro irisgarritasun-hobekuntzetarako. Jardíñeta, Ubitxa/ San Kristobal, Torrekua / Amaña, Saratsuegi (Sautsi) y Untzaga /Arratebide dira atal honetako lehentasunen agendaren zati.
- 1.000.000 euro hiri-inguruneetan eta asfaltatuetan hobekuntzak egiteko. Hobekuntza- eta mantentze-lanei erantzungo diete, herritarrek erosoago egon daitezen bizitzeko erabaki duten hirian.

Era berean, azpimarratu behar dira Aurrekontu Parte-hartzaileak finkatzeko lanean jarraitu ahal izateko eta aurrekontuok bermatzeko inbertsioak; herriko ikastetxeak hobetzea; udal lurzoru-ondarea erosteko partida garrantzitsuak bideratzea, etorkizuneko proiektu estrategikoetarako posizionatzen utziko digutenak; edo ahalik eta proiekturik onenean lan egiten jarraitzeko partida ireki bat mantentzea, eta, horrela, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako konpromisoa bete, trenbidearen estaldura amaitzeko eta baserri-auzoak hobetzearen aldeko apustua egiten jarraitzeko. Helburu horiek bermatzeko 1.750.000 euro inguru dauzkagu.

Hirian, bizi-kalitatea bermatzeko eta herritarren zerbitzura jarritako azpiegituren funtzionamendu zuzena bermatzeko, hor daukagu gure hiri-



ingurunean funtzionatzen duten mekanismo mekanikoak (igogailuak, arrapalak eta eskailera mekanikoak) mantentzeak eskatzen duen ahalegin ekonomikoa; bai eta hiri garbiago bat mantentzeko ere, bide-garbiketako sistemak hobetuz eta herritarrak herriarekiko errespetuan kontzientziatuz. Kontzeptu bi horietan 2.200.000 euro baino gehiago jartzen ditugu urtean.

Orain dela gutxi, Udaleko Osoko bilkurak larrialdi klimatikoari buruzko akordio bat hartu zuen, eta konpromisoa hartu zuen ingurumenaren gaiek protagonismoa hartzen joan daitezela, gure ahalmenen eta eskumenen neurrian, aurrera egiteko Eibar iraunkorrago baterantz.

Denbora daramagu ildo horretan lanean, eta dagoeneko konpromiso batzuk jasota daude proiektu honetan. Ibilgailu elektrikoak erosteko partidak, LED argiak pixkanaka ordeztzen joateko partidak, etxejabe-erkidegoetan fatxadak birgaitzeko dirulaguntzetan energia-eraginkortasuneko klausulak sartzeak edo ingurumen-arloko partidek eta dagoeneko finkatuta dauden programek, horiek guztiak milioi bat eurotik gertu daude.

Gauza jakina eta aitortua denez, Eibar herri bat da, non elkarbizitza beti izan den bere nortasunaren ezaugarrietako bat. Eta ezin dugu galdu gure nortasunaren ezaugarri hori, alderantziz: indartu egin behar dugu, sendotu. Eta, Udaletik, hori islatzen duten ekimenak sustatzeko konbikzioa dugu, baina baita betebeharra ere.

Egoerarik ahulenean dauden kolektiboen ondoan egotea eta laguntzea, bide horretatik doaz, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen sailak konpromisoz eta profesionaltasunez egiten du behar. Horren isla izan daitezke Gizarte Zerbitzuen mapa ezartzea, Etxeko Laguntza zerbitzua bermatzea, gizarte-larrialdietarako laguntzak kudeatzea eta, hala bada kasua, osatzea, langabeei laguntzeko partida finkatzea, kolektiboekin, GKEekin, jubilatuen etxeekin lankidetzan aritzea, edo lankidetzan eta garapena bultzatzea. Bi milioi euro baino gehiago bizikidetzan sustapena tresnez hornitzeko.

Baina elkarbizitza, elkarrekin bizi izatea, askoz gehiago da. Igoaldadea da, berdintasuna. Eta, horregatik, gero eta gertuago dago Andretxe berri bat, Eibarko gizartean Berdintasuna bultzatzeko behar den lekuarekin.

Bizikidetzan da gure herrian euskara sustatzea, kultura-aniztasuna lantzea, kultura sustatzea eta unibertsal egitea, kultura-talde eta elkarteekin lankidetzan aritzea, bai eta jai-ekitaldiak auzoetara gerturatzeko dituzten batzordeekin ere, Antzerki Jardunaldiak finkatzeaz arduratzea, gure mugak gainditzen dituen kulturaren aldeko apustuaren irudi gisa.

Elkarbizitza da kirol-taldeen beharrak ulertzea eta haien bideragarritasun ekonomikoan laguntzea, gure gazteekin lanean jarrai dezaten, ez bakarrik kirol-diziplina ugarian, baita beti beharrezkoak diren balioen loturan ere. Kirola praktikatzeko aukera jende orori bermatzea, Kiroletako Udal Patronatuaren





defizitari eutsiz, eta inoren egoera ekonomikoa ez dela gure hirian izango kirolaren oinarrizko praktikarako oztopo bermatuz.

## **EIBAR BEHARRERAKO**

Elkarbizitza nabarmendu dugun bezala gure hirian nortasun-ezaugarri eztabaidaekin gisa, gure tradizio industrialak da, zalantzarik gabe, harrotzen gaituen eta anbizioa izatera behartzen gaituen beste ezaugarri bat da, gure eskumeneren eta erantzukizunen esparru barruan, gure ehun ekonomikoari aberastasuna sortzeko baldintza hobekak izaten lagunduko dioten neurriak sortzen lan egitera behartzen gaituena, eta, horrekin batera, enplegua, administrazioen funtsezko ikasgaietako bat, non lerrokatu eta modu koordinatuan lan egiteko obligazioa dugun.

Ekonomiaren Garapenerako alorretik, lanean jarduteko konpromiso irmoa dugu gure eskumenez eta erantzukizunez baliatuta, Eibar izan dadin hiri bat, non pertsonak beren lan-proiektua garatu ahal izateko aukerak aurkituko dituzten, gure artean aritzeko aukera, ekintzaile gisa, besteren kontura, industrian edo, enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza-aukerak bilatuz, arreta berezia jarriz lan merkatuan sartzeko arazo gehienak dituzten taldeetan.

Eta hori guztia ezinbestekoak ditugun solaskideekin hartu-emanen, hau da, gizarte-eragileekin, prestakuntza-zentroekin eta enpresa-munduarekin, berek gida gaitzaten garatu beharreko programetan asmatzen.

3.000.000 eurotik gora programetan eta ekintzetan. Gaietik bada ere, aipatu egingo ditut:

- Prestakuntza- eta enplegu-ekintzak.
- Ekintzailetzari laguntzeko programak.
- Enplegarritasuna hobetzeko programak.
- Nazioartekotzen laguntzeko "Cruz Irasuegui" Bekak.
- Lankidetzak Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearekin.
- Oinarrizko Prestakuntzarako Institutua.
- Jarduera ekonomikoa indartzea.
- Toribio Echevarría sariak.
- Eibarko enpresei laguntza erronka teknologikoetan
- Ekingune.
- Dendarien Elkartearekin eta Eibar Merkataritza-gune Irekiarekin lankidetzak.
- Inkubagailu teknologikoak
- Eibargune II





## **NEGOZIAZIOA UDAL TALDEEKIN**

Badakigu gutxiengoan gobernatzen dugula, eta, beraz, ezinbestekoa dela akordioak lortzea Aurrekontuen Proiektuaren onarpena bermatzeko, 2020. urte honetako kudeaketaren funtsezko tresna baita. Baina ez da bakarrik obligazioa, konbikzioa edo uste osoa ere bada, akordioek Dokumentua indartu, aberastu eta hobetu egiten dutela, gure ikuspegitik, hirirako ona zen dokumentua.

Eta ez da erraza izan. Ekitaldi honetan zirriborroa 2019ko azaroaren hasieran aurkeztu genuen, abenduaren amaierarako onartuko zelakoan. Zoritxarrez, hilabete bateko hasierako epearekin eta Eibarko EH-Bildu udal taldeak eskatutako epe luzatuarekin, negoziazioa luzatu egin da denboran, horretarako deituko den Osoko Bilkuran onartuko dela bermatu arte. Espero dut hain negoziazio luzeak balio izan duela, ez bakarrik Aurrekontu hau bermatzeko, baizik eta negoziazio arinagoak bermatuko dituzten etorkizuneko irizpideak ezartzeko.

### **EH BILDU**

Ez naiz larregi luzatuko. Hiru zuzenketa partzial, 6,6 milioi euro baino gehiagoko balio onartezinekoak, proposamena egin duen taldeak berak ere jakinda edukiaren aldetik ezin direla bete, horretarako eskumenik ez dagoelako, eta are gehiago: herritarren parte-hartzeari buruz talde horrek duen jarreraren aurkakoak. Hala ere, uste osoa dut, aurreko ekitaldietan bezala, jarrera errealistagoetatik abiatzen badira, negoziazioa ez ezik, akordioa ere posible izango dela datorren urtean.

### **ELKARREKIN PODEMOS-EIBAR**

Nahiz eta koalizio honen botoak ez duen bermatzen Aurrekontuaren onarpena, berriro ere gure konbikzioari eusten diogu: akordioa ahal den udal talde guztiekin zabaltzea. Era berean, bere jarrera posibilista izan da, eta hasiera-hasieratik izan du akordiorako borondatea; beraz, Dokumentuan sartu beharreko ekimenak adostea eta kontuei babesa ematea prozesu nahiko motza izan da. Mirabasok eta herritarrak kontzientziatzeko hainbat ekimenek aukera emango diote Elkarrekin-Podemos Eibarri bereak diren hainbat ekimen ekitaldi honetan islatuta ikusteko.

### **EIBARKO EAJ-PNV**

Egi benetan, negoziazio-prozesua gogorra, luzea eta korapilatsua izan da. Ez da erraza izan akordioa lortu ahal izateko jarrerak gerturatzea. Barneko eta kanpoko baldintzek eta negoziazioan egindako interpretazioek gehiegi luzatu dute prozesua denboran. Baina, azkenean, bere berba betetzen duten bi alderdiren konpromisoa nagusitu da. Balio beza esperientzia honek lehen urte



honetan egindako ibilbidea ez errepikatzeko eta etorkizunean azkarragoak izateko.

Hiri-inguruneak hobetzera bideratutako neurriak, aparkaleku berriak, koexistentzia-eremuak zabalduz; Matxarian udal lurzoru-ondararako lurzoruak erostea; baserritarrentzako garraio publikoa sortzea; Mercedes Kareaga beka berria edo hainbat kolektiborentzako dirulaguntzak. Ekimen horiek guztiak Dokumentuan sartuta, aberastu eta haren onarpena bermatuko dute.

Hasi naizen bezala amaitu nahiko nuke. Agintaldi honetako lau aurrekontuetako lehenengoan gaude. Asko dira biltzen dituen proiektuak, eta asko geratuko dira sartzeke, etorkizuneko ekitaldierako. Gure helburua beti izango da akordioetara heltzea aurrekontu bakoitza onartu ahal izateko, eta, horrela, gure konpromisoak bete ahal izatea, Eibar bizi izateko, elkarrekin bizitzeko eta lan egiteko herri izaten jarrai dezan.

Eibarren, 2020ko otsailaren 20an.

EIBARKO ALKATEA

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL